

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2020ko uztailaren 25etik 31erako astea**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2020/07/25

- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA AGENDA URBANOAREN MINISTERIOA. - Abiazio zibila.** - TMA/692/2020 Agindua, uztailaren 15ekoa, abiazio zibileko aireontziei erregaia hornitzeko aplikatu beharreko arau teknikoak onesten dituenak. [2020-8554 xedapena - 21 or.](#)

2020/07/27

- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA. - Abeltzaintza. Arrazako txakurrak. Animalien osasuna.** - APA/698/2020 Agindua, uztailaren 21ekoa, zeinaren bitartez eguneratzen den arraza garbiko txakurren hazleen erakundeen edo elkarten aintzatespen ofiziala arautzen duen maiatzaren 25eko 558/2001 Errege Dekretuaren Eranskina, eta aldatzen den otsailaren 8ko 45/2019 Errege Dekretuaren I. eranskina. Errege dekretu horren bitartez, arraza garbiko ugalketarako animaliei, ugalketarako zerri hibridoek eta haien ugalketa-materialari aplikatu beharreko arau zooteknikoak ezartzen dira; abeltzaintzako arrazak zaindu, hobetu eta sustatzeko programa nazionala eguneratzen da, eta honako errege dekretu hauek aldatzen dira: 558/2001 Errege Dekretua, maiatzaren 25ekoa; 1316/1992 Errege Dekretua, urriaren 30ekoa; 1438/1992 Errege Dekretua, azaroaren 27koa, eta 1625/2011, azaroaren 14koa. [2020-8582 xedapena - 2 or.](#)
- **GAI EKONOMIKOEN ETA ERALDAKETA DIGITALAREN MINISTERIOA. - Kreditu erakundeak. Banku zerbitzuak.** - ETD/699/2020 Agindua, uztailaren 24koa, revolving kredituak arautzen dituenak eta agindu hauek aldatzen dituenak: ECO/697/2004 Agindua, martxoaren 11koa, Arrisku Informazioaren Zentralari buruzkoa; EHA/1718/2010 Agindua, ekainaren 11koa, banku zerbitzuen eta produktuen publizitatea arautzeko eta hura kontrolatzeko buruzkoa, eta EHA/2899/2011 Agindua, urriaren 28koa, banku zerbitzuen gardentasunari eta bezeroaren babesari buruzkoa. [2020-8583 xedapena - 16 or.](#)

2020/07/328

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. - Prozedura kriminala.** - 2/2020 Legea, uztailaren 27koa, Prozedura Kriminalaren Legearen 324. artikulua aldatzen duena. [2020-8633 xedapena - 2 or.](#)
- **GORTE NAGUSIAK. - Premiazko neurriak.** - Ebazpena, 2020ko uztailaren 22koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bitartez agintzen den argitara dadila garraioen eta etxebizitzaren alorrean COVID-19aren eraginari aurre egiteko berraktibazio ekonomikorako neurriei buruzko uztailaren 7ko 26/2020 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze akordioa. [2020-8634 xedapena - 1 or.](#)

2020/07/30

- **OSASUN MINISTERIOA. - Mugak. Osasun kontrola.** - Ebazpena, 2020ko uztailaren 24koa, Osasun Publikoaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren Zuzendaritza Nagusiarena, Espainiara sartzeko puntuetan egin beharreko osasun kontrolei buruzkoa eta 2020ko ekainaren 29ko Ebazpena indargabetzen duena. [2020-8750 xedapena - 7 or.](#)

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2020/07/29

- **OSASUN SAILA.** - AGINDUA, 2020ko uztailaren 28koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita agindu honen eranskina: Agindua, 2020ko ekainaren 18koa, Osasuneko sailburuarena, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurriei buruzkoa, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren 3. fasea gaingitu eta gero. [3041 xedapena - 18 or.](#)
- **SEGURTASUN SAILA.** - AGINDUA, 2020ko uztailaren 23koa, Segurtasuneko sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita ondasun erabilien merkataritzan erregistro-betebeharrak -erregistro-liburuak- eta Ertzaintzari jakinaraztekoak betetzeko modua garatzen duen agindua, telefonia mugikorrek gailu erabilien eta antzeko beste gailu mugikor batzuen konponketa barne. [3042 xedapena - 3 or.](#)

2020/07/29

- **ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA.** - EBAZPENA, 2020ko uztailaren 27koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, aparteko dirulaguntzetarako deialdiaren aldaketa argitaratzeko dena; dirulaguntzen hartzaileak norberaren konturako langileak edo langile autonomoak izango dira, zehazki beren jarduerak etenda dituztenak COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko deklaraturako alarma-egoera dela eta. [3093 xedapena - 3 or.](#)

A. L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

2020/07/27

- **FORU AGINDUAK (ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA).** - Foru Agindua 282/2020 uztailaren 16koa, onestea COVID-19ak sortutako jarduera gastuei aurre egiteko ezohiko laguntzen deialdia turismo sektoreko ETEentzat eta autonomoentzat. [2079 xedapena - 11 or.](#)

2020/07/29

- **FORU ARAUAK.** - 12/2020 Foru Araua, uztailaren 17koa, Arabako Lurralde Historikoko 2020. urterako aurrekontua gauzatzeko abenduaren 17ko 24/2019 Foru Araua aldatzeko. [2104 xedapena - 2 or.](#)
- **FORU GOBERNU KONTSEILUAREN ERABAKIAK.** - Foru Gobernu Kontseiluaren 346/2020 Erabakia, uztailaren 21ekoa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiak kontribuzio berezia ezartzeari 2020ko ekitaldirako, su itzaltze eta salbamendu zerbitzua jarri, hobetu edo handitzeko. [2112 xedapena - 2 or.](#)

2020/07/31

- **FORU ARAUAK.** - 13/2020 Foru Araua, uztailaren 23koa, 9/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, uztailaren 14koa, baliozkotzeko dena, onesteko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren aldaketa, zerga arloan informazioa automatikoki eta nahitaez trukatzeari buruzkoa, komunikatu eta jakinarazi behar diren mugaz gaindiko mekanismoei dagokienez. [2157 xedapena - 1 or.](#)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2020/07/27

- **BATZAR NAGUSIAK. - Bizkaiko Batzar Nagusiak. -**
 - 5/2020 FORU ARAUA, uztailaren 15ekoa, zeinaren bidez ezartzen baitira ekonomia jardueren etekinak kontrolatzeko sistema integral bat eta tributubetebeharrak betetzen laguntzeko neurriak. Horretarako, aldatu egin dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Araua eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorra. BAO-2020a142-(I-494). [494 xedapena - 22 or.](#)

- 6/2020 FORU ARAUA, uztailaren 15ekoa. Honen bidez, batetik, hiru zuzentarau hauen transposizioa egiten da: Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 25eko 2018/822 /EB Zuzentarauarena (haren bidez, 2011/16/EB Zuzentaraua aldatu zen, fiskalitatearen arloko informazioaren truke automatikoari eta nahitaezkoari dagokionez, informazioa komunikatu beharra duten mugaz gaindiko mekanismoak direla eta), Kontseiluaren 2016ko uztailaren 12ko 2016/1164/EB Zuzentarauarena (haren bidez, barne-merkatuaren funtzionamenduan zuzeneko eragina duten saiheste fiskaleko jardunbideei aurre egiteko arauak ezartzen dira) eta Kontseiluaren 2017ko urriaren 10eko 2017/1852 Zuzentarauarena (Europar Batasunean auzi fiskalak ebazteko mekanismoei buruzkoa); eta, bestetik, aldatu egiten dira martxoaren 10eko 2/2005 Foru Araua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzkoa, eta abenduaren 5eko 11/2013 Foru Araua, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa. [495 xedapena - 28 págs.](#)

2020/07/28

- **BIZKAIKO FORU ALDUNDIA HERRI ADMINISTRAZIOARAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILA. - Bizkaiko Foru Aldundiaren. -** 74/2020 FORU DEKRETUA, uztailaren 21ekoa, abenduaren 18ko 169/2018 eta azaroaren 26ko 177/2019 Foru-Dekretuak aldatzen dituen Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 23ko 65/2020 Foru Dekretuaren oker-zuzenketa (2020ko ekainaren 30eko Bizkaiko Foru Aldundian argitaratua, 123. zenbakian). Foru-dekretu horien bidez, onetsi egiten dira udal eskumeneko erabilerei edo zerbitzu publikoei lotutako azpiegituratarako inbertsioak sustatzeko xedea duten eta Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Foru Sailak 2019an eta 2020an emango dituen diru-laguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak. [504 xedapena - 2 or.](#)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2020/07/27

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA. -** 312/2020 Foru Agindua, uztailaren 21ekoa, zeinaren bidez arautzen baita zer baldintzatan adierazi ahal izango duten zergapekoek zein egunetan ezingo duen Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak zerga jakinarazpenik haien esku jarri bere egoitza elektronikoa. [3654 xedapena - 3 or.](#)

2020/07/29

- **EKONOMIA SUSTAPENEN, TURISMOKO ETA LANDA INGURUNEKO DEPARTAMENTUA. -** Gipuzkoako nekazaritza eta abeltzaintza sektorean COVID-19ak sortutako krisiari aurre egiteko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak eta 2020ko deialdia. [3631 xedapena - 10 or.](#)

2020/07/30

- **EKONOMIA SUSTAPENeko, TURISMoko ETA LANDA INGURUNEko DEPARTAMENTUA.** - Gipuzkoako enpresa sarearen aukerak, balio diferentziala eta iraunkortasuna sustatzeko Programako dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta 2020ko deialdia. [3639 xedapena - 32 or.](#)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala):

2020/07/29

- 2020/1108 (EB) Erregelamendua, 2020ko uztailaren 20ko Batzordearena, 2017/2454 (EB) Erregelamendua aldatzen duena, aplikazio datei dagokienez, COVID-19aren pandemiari erantzuteko . [2 or.](#)
- 2020/1109 (EB) Erabakia, 2020ko uztailaren 20ko Batzordearena, 2017/2455 (EB) eta 2019/1995 (EB) zuzentarauak aldatzen dituen, transposizio eta aplikazio datei dagokienez, COVID-19aren pandemiari erantzuteko. [3 págs.](#)
- Batzordearen 2020/1112 (EB) Betearazpen Erregelamendua, 2020ko uztailaren 20koa, 2019/2026 (EB) Betearazpen Erregelamendua aldatzen duena, aplikazio datei dagokienez, COVID-19aren pandemiari erantzuteko. [2 págs.](#)
- Arrisku Sistemikoko Europako Batzordea. - Arrisku Sistemikoko Europako Batzordearen Gomendia, 2020ko maiatzaren 27koa, COVID-19aren pandemiaren aurrean ekonomia erreala babesteko zorren luzamenduek, berme-plan publikoek eta izaera fiskaleko beste neurri batzuek finantza-egonkortasunean dituzten ondorioak zaintzeari buruzkoa. (JERS/2020/8). [5 or.](#)

2020/07/31

- **GOMENDIOAK. - Europako Banku Zentrala.** - Europako Banku Zentralaren Gomendia, 2020ko uztailaren 27koa, COVID-19aren pandemian dibidenduak banatzeari buruzkoa eta BCE/2020/19 Gomendia indargabetzen duena (BCE/2020/35). [3 págs.](#)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2 HENAO, 26 - BILBAO